



Emaitzen laburpena: 2015eko datuak

Arte eta kultura-industriak 2015 **_** estatistika

2017ko ekaina



**Kulturaren
Euskal Behatokia**
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA



Arte eta kultura-industriak 2015 _ estatistika

Aurkibidea

- 1_ Arteei eta kultura-industriei buruzko zifra nagusiak _3
- 2_ Asimetriak _5
- 3_ Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria _6
- 4_ Euskarazko kultura _7
- 5_ Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna _12
- 6_ Nazioartekotzea _13
- 7_ Emakumeen presentzia enpleguan _15

—

1 _Arteei eta kultura-industriei buruzko zifra nagusiak

> 629 agenterik buruzko informazioa biltzen da:

117 programatzaile eta arte eszenikoetako 76 ekoizle; 109 liburu-denda eta 42 argitaletxe; 121 musika-programatzaile eta diskoaren industriako 23 agente; 30 erakusketa-areto 18 arte-galeria eta bi produkzio-gune; eta ikus-entzunezko sektoreko 91 agente ekoizle.

> Diru-sarreraren eta gastuen balantzea positiboa da, 6,2 milioi euroko emaitzarekin (guztizkoaren % 1,7).

> 2.814 langilek **dute enplegua**: ikus-entzunezkoen sektoreak hartzen du proportziorik handiena (% 44,6), atzetik musika (% 21,2) eta liburuaren industria (% 16,7).


> Titulartasun publikoa duten agenteak dira nagusi, baina duten pisu ekonomikoa eta enpleguan dutena ez da proportzionala.

Agenteen % 57,7 badira ere, agente publiko eta pribatuen diru-sarreraren bolumena 175 milioi euro ingurura iristen da (% 48,2 agente pribatuen kasuan, % 47,0 agente publikoen kasuan). Enpleguari dagokionez, langileen % 51,5 biltzen dute agente pribatuek.

> Kultura-sarea Bizkaian kontzentratzen da, baina Gipuzkoa biztanleko duen kultura-dentsitateagatik nabarmentzen da.

Lurralde Historikoen arabera begiraturaz gero, Bizkaian agenteen kontzentrazioa ikus daiteke, baita haren pisu ekonomikoa eta enplegu-arloko pisua ere (diru-sarreraren guztizkoaren % 65,2 eta % 61,5, hurrenez hurren).

1. irudia. Agenteen, diru-sarreraren, gastuen eta langileen portzentajezko banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekoak. 2015.



Kultura-sarearen 100.000 biztanleko ratioa handiagoa da Gipuzkoan (35,5), bederatzi puntu Bizkaiaren aurretik (26,5) eta hamaika Arabaren aurretik (23,3). Gipuzkoak dituen programatzaile eta ekoizle ratioak (15,6 eta 13,0, hurrenez hurren) handiagoak dira. Bizkaiak saltoki gehiago ditu 100.000 biztanleko, Gipuzkoaren aurretik eta, bereziki, Arabaren aurretik (7,5, 6,9 eta 3,7, hurrenez hurren).

2. irudia. Agente programatzaileen eta erakusleen, saltokien eta ekoizleen 100.000 biztanleko banaketa eta ratioa, Lurralde Historikoaren arabera. Datu absolutuak eta ratioa/100.000 biztanle. 2015.


Agente tipologia	Araba		Gipuzkoa		Bizkaia		EAE	
	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.	Ratioa	Maizt.
Programatzaileak eta erakusleak	1,5	37	15,6	111	10,5	120	12,3	268
Saltokiak	3,7	12	6,9	49	7,5	86	6,8	147
Ekoizleak	8,1	26	13,0	92	8,4	96	9,8	214
Guztira	23,3	75	35,5	252	26,5	302	28,9	629

2 Asimetriak

> Diru-sarreraren eta enpleguaren kontzentrazio-maila handia agente kopuru murritzean.

Diru-sarrera handienak dituzten agenteen % 20k sektore bakoitzeko diru-sarrera guztien 10 euroko 7-8 euro metatzen dute (liburu-dendetan izan ezik). Asimetria-maila desberdina da eta dagokion jardueraren eta negozioaren ezaugarrien mende dago, baina, dena dela, diru-sarreraren eta, neurri txikiagoan, enpleguaren metaketa gertatzea eredu komuna da.

3. irudia. Agente nagusiak (sektore bakoitzean diru-sarrera handienak dituztenen % 20), diru-sarreraren kontzentrazio-mailaren, jarduera bolumenaren* eta enpleguaren arabera. Ehunekoa. 2015.



* Disko-saltokiak eta liburu-dendak = salmentak; argitaletxeak = nobedade gisa editatutako tituluak; arte eszenikoak = funtzioak; musika = kontzertu programatuak; ikus-entzunezkoen ekoizpen-etxeak = ekoizpenak; ikusizko arteak=


■ Diru-sarrerak ■ Jarduera ■ Langileak

3. Zuzeneko kultura vs kultura erreproduzigarria

> Zuzeneko kulturako agenteak dira nagusi, baina kultura erreproduzigarriak diru-sarreretan eta enpleguan duen pisua handiagoa da.

Kultura erreproduzigarriaren diru-sarrerak 244,3 milioi eurora iristen dira, eta zuzeneko kulturarenak, aldiz, 128,5 milioi eurora. Kultura erreproduzigarriari lotutako enpleguak 1.753,4 dira guztira, eta zuzeneko kulturari lotutakoak, berriz, 1.060,6.

4. irudia. Arte eta industria agenteen banaketa, zuzeneko kulturaren eta kultura erreproduzigarriaren arabera. Ehunekoak. 2015.




Datuak EITBren eragina kontuan hartu gabe aztertzen badira, inpaktua handiagoa da: zuzeneko kulturak guztizko enpleguaren % 48,0ko pisua du eta diru-sarreraren % 48,2.

4 Euskarazko kultura

> Euskarak presentzia nabarmena du antzerki-, disko- eta argitalpen-arloko eta ikus-entzunezko ekoizpenean.

Orohar, euskara nagusi da diskoekoizpenean (% 80,5), ekoizpen eszenikoan (% 58,5) eta argitalpenekoizpenean (% 51,4). Ikus-entzunezkoen ekoizpenean eta programazio eszenikoan maila txikiagoak lortzen ditu (% 39,8 eta % 34,9, hurrenen hurren).

5. irudia. Euskararen pisua, agente tipologiaren arabera¹. Ehunekoak. 2015.



> Euskara arte eszenikoetan.

Gipuzkoan, euskaraz ekoiztako ikuskizunen pisua % 68,6 da, hau da, Gipuzkoan egindako 10 obratetik ia 7 euskaraz dira (obra horietatik % 28,6 euskaraz dira eta % 71,4 euskaraz eta gaztelaniazko bertsioa dutenak). Araban 10etik 6 (% 58,8, eta obra horietatik % 20,0 soilik euskaraz ekoiztakoak dira) eta Bizkaian, aldiz, 10etik 5 (% 48,0, soilik euskarazko ekoizpenen pisua % 62,5 da).


¹ AEetako ekoizleak: euskaraz, eta euskaraz eta gaztelaniaz (bertsio bikoitza) ekoiztako antzerki-ikuskizunak // AEetako programatzaileak: aretoek eta jaialdiek euskaraz programatutako antzerki-ikuskizunak // Argitaletxeak: argitaratutako (nobedadeak) eta berrargitaratutako (funtsa) aleak // Ikus-entzunezkoak: euskaraz, eta euskaraz eta gaztelaniaz (bertsio bikoitza) egindako ekoizpenak

6. irudia. Euskarazko, eta euskarazko eta gaztelaniazko arte eszenikoetako ekoizpenen banaketa, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekoak. 2015.

Lurralde historikoa	Euskara	Euskara eta Gaztelania	Guztira
Araba	20,0	80,0	58,8
Gipuzkoa	28,6	71,4	68,8
Bizkaia	62,5	37,5	48,0


Euskarak programazio eszenikoan duen pisua ekoizpenaren erdia da, 10 antzezpenetatik 7 bestelako hizkuntza batean dira, Gipuzkoan izan ezik, % 50a gainditzen baitu lurralde horretan euskarazkoak.

7. irudia. Euskararen presentzia arte eszenikoen ekoizpenean eta programazioan, Lurralde Historikoaren arabera. Ehunekoak. 2015




Euskarazko antzerkiaren ekoizpena eta programazioa hiru generotan biltzen da: haurrentzakoak, testukoak eta kalekoak.

8. irudia. Euskarazko antzerkiaren ekoizpena, tipologiaren arabera. Ehunekoak. 2015.




9. irudia. Euskarazko antzerkiaren programazioa, tipologiaren arabera. Ehunekoak. 2015.




Euskara ikus-entzunezkoetan. Ikus-entzunezko ekoizpenen % 39,8 euskaraz edo euskaraz eta gaztelaniaz (bertsio bikoitza) egiten dira. EITB kontuan izanez gero, ekoizpenaren % 50,7ra igotzen da pisua. Emanaldiak eta telebista gailentzen dira: emanaldien % 75,7 eta telebista-ekoizpenen % 60,4 euskaraz egiten dira.

10. irudia. Euskarazko ikus-entzunezko ekoizpena, tipologiaren arabera. Ehunekoak. 2015. (EITBrekin)



Euskara argitalpen-ekoizpenean. Euskarazko argitalpen-ekoizpenak % 51,4ko pisua du² guztiarekiko 2015ean: nagusi da milioi 1 eurotik gorako diru-sarrerara aurrekontua duten argitaletxeetan (% 57,0ko pisua), eta argitaletxe txikiagotan ekoizpenaren %43,2ra iristen da.

11. irudia. Euskararen pisu erlatiboa argitalpen-ekoizpenean, argitaletxearen profilaren arabera. Ehunekoak. 2015.




² Muturreko baliorik gabe



Generoen arabera, hiztegi eta entziklopediak, literatura, haurrentzako eta gazteentzako literatura eta unibertsitatekoak ez diren testu-liburuak dira euskaraz ale gehien argitaratzen dituztenak (% 80,6, % 64,4, % 69,6 eta % 67,4, hurrenez hurren).

12. irudia. Euskarazko argitalpen-ekoizpena, generoaren arabera. Ehunekoak. 2015.



5_ Ekimen publikoaren pisua eta harekiko mendekotasuna

> **Ekarpen publikoekiko mendekotasun-maila txikia**, beren diru-sarreraren % 4,3 soilik datorkie diru-laguntzetatik. Mendekotasun mailarik handiena arte eszenikoetan eta ikus-entzunezkoetan da beste ezein sektoretan baino (% 16,1 eta % 7,9, hurrenez hurren).

13. irudia. Agente pribatuek arlo publikoarekiko duten mendekotasuna, sektorearen eta agente tipologiaren arabera (1). Datu absolutuak eta ehunekoak. 2015.

Sektorea	Agente tipologia	2015		
		Agente pribatuek	Guztizko dirusarrerak	Ekarpen publikoak
		Maizt.	Milako euroak	%
Arte eszenikoak	Ekoizlea	57	10.593,4	16,1
	Programatzailea	2	-	-
Liburua	Argitaletxea	39	31.145,6	4,0
	Liburu-denda	108	55.381,9	0,0
Musika	Sustatzaile	11	26.385,3	2,9
	Kontzertu-aretoa	16	2.713,7	6,2
	Diskoetxea	3	644,6	6,6
	Disko-saltokiak	20	2.982,4	0,0
Ikusizko arteak	Arte-galeria	18	2.437,2	2,1
Ikusentzunezkoak	Ekoizlea	89	47.218,9	7,9
Guztira		363	179.895,0	4,3

(1) Ez dira jasotzen agente pribaturik gabeko tipologiak edota sekretu estatistikoa urra dezaketen tipologiak.


> **Programazio eszenikoa eta ikusizko arte erakusketak gehienbat publikoak dira.** Programatzaile publikoak dira nagusi areto eta jaialdien eskaintza eszenikoan (% 82,8): Ikusizko arteen alorrean, hamar erakusketetatik sei erakusketagune publikoetan izan dira (% 62,8). Zuzeneko musikaeskaintzan kontzertuen % 46,3 ekimen publikokoak dira.

6 Nazioartekotzea

> **Artista atzerritarrek duten presentzia nahiko txikia da.**

EAEko artista eta sortzaileak nagusi dira kultura-ekoizpenean eta kultura-programazioan: programatutako kontzertuen % 55,3arekin, antzeppen eszenikoen % 56arekin, diskografia kopia diskografiakoen % 60,3arekin eta ikusizko arte erakusketen % 67,1arekin atal bakoitzean.


14. irudia. Nazioartekotzeak kultura-programazioan eta -ekoizpenean duen pisua. Ehunekoak. 2015.



> Arte eszenikoetako konpainien emanaldiak hamarretik lau inguru izaten dira EAetik kanpo:

konpainien antzezpenen % 8,4 atzerrian izaten dira eta hamarretik hiru Estatuan (% 30,7). Dantza-konpainiek presentzia handiagoa dute atzerrian (emanaldien % 17,9 atzerrian eta % 25,9 estatuan).


15. irudia. Arte eszenikoen ekoizpen-konpainiek egindako emanaldiak, emandako lekuaren arabera. Ehunekoak. 2015.



> Kontzertu sustatzaileen helmuga nagusia Estatua da.

EAEn kokatutako kontzertu sustatzaile pribatuek Estatuko merkatua dute jomuga bereziki (kontzertuen % 42,7), atzerriko merkatuaren oso aurretik (kontzertuen % 1,2).


16. irudia. Sustatzaile pribatuek programatutako kontzertuak, programatutako lekuaren arabera. Ehunekoak. 2015.



7 Emakumeen presentzia enpleguan

> **Emakumeek kultura-sektoreetako enpleguan duten pisua itxura batera orekatua da (% 47).** Emakumeen presentziarik handiena duten sektoreak liburua eta ikusizko arteak dira; presentzia txikiagoa dute musikan eta ikus-entzunezkoetan.


17. irudia. Lanaldi eta urte osoko langile baliokideak, sexuaren eta sektoreen arabera. Emakumeen ehunekoa. 2015.



> **Alde handiak daude emakumeek betetzen dituzten postuetan sektoreen artean.**

Kudeaketara eta administraziora bideratutako postuak dira nagusi (% 69,9), baina proportzioan gutxi dira (gutzizko enpleguen % 12,9). Teknikari- eta zuzendari-profilek emakumeen ehuneko txikiagoari ematen diete lana (% 43,8 eta % 37,1). Kontuan hartu behar da teknikari-profilek enpleguen kopuru handiagoa biltzen dutela (% 57,7).


18. irudia. Lanaldi eta urte osoko baliokide diren emakumezko langile guztien banaketa, sektoreen eta lanbide-kategoriaren arabera. Datu absolutuak eta ehunekoak. 2015.



> Zuzendaritza-postuetan diren emakumeak % 37,1era iristen dira.

Gehienak liburu-dendetako jabe (66 enplegu) eta, neurri txikiagoan, arte eszenikoetako eta ikus-entzunezkoetako agente zuzendariak (30 postu inguru alor horietako bakoitzean).

19. irudia. Lanaldi eta urte osoko zuzendaritza-karguetan dabilen langile baliokide guztien banaketa, sexuaren eta sektoreen arabera. Ehunekoak. 2015.





Emaitzen laburpena: 2015eko datuak

Arte eta kultura-industriak 2015 _estatistika

2017ko ekaina



Kulturaren
Euskal Behatokia
Observatorio Vasco
de la Cultura



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

KULTURA ETA HIZKUNTZA
POLITIKA SAILA

DEPARTAMENTO DE CULTURA
Y POLÍTICA LINGÜÍSTICA